

1. IDEIA

Guk aplikazio bat sortuko dugu, Keep & Help izeneko. Gure aplikazioa zera izango da: unibertsitateen aplikazioa gehien bat. Guk ikasleen harteko harremana erraztuko dugu, hau da, unibertsitatera sartu baino lehen ikasleek gure aplikazioa deskargatuko dute. Honen bidez, haien karrera berdineko jendea ezagutuko dute eta haiekin hitz egin dezakete. Beraz gure helburua ikasleen arteko harremanak erraztea eta aurrera eramatea da. Gainera, ikasleak lagundu nahi ditugu haien karrera aurrera eramateko.

FUNTZIONAMENDUA:

Aplikazioa deskargatzerakoan, ikasleek kontu bat sortuko dute, bertan non ikasten duten (ze probintzian, ze hiritan eta ikasten duten unibertsitatearen izena). Segidan galdetegi bat agertuko zaie, eta haien izaera eta gustuak adieraziko dituzte. Horrela aplikazioa haien informazioarekin geratuko da eta haien antzeko pertsonak erakutsiko dizkio. Hala ere, ikasleak berak nahi ditue profilak bilatu ditzake. Ikasleak bere profil propioa sortuko du, eta bertan berari buruzko gauzak jar dezake.

Ikasleak bere karrera berdineko profil guztiak edukiko ditu eskuragarri, eta haiekin harremanetan jar daiteke unibertsitatera sartu baino lehen. Gainera, guztien artean talde bat sortu dezakete hitz egiteko. Horretaz gain, aplikazioak beste hainbat funtzio izango ditu. Alde batetik, ikasleek aplikazio honen bidez apunteak partekatu ahal dituzte, eta hainbat lagungarri izango dituzte materia guztietarako (bideoak, eskemak, laburpenak...). Bestetik, haien profiletan argazkiak igo ahal dituzte, hau da, sare sozial moduan funtzionatu dezake ere. Azkenik, unibertsitatera hainbat leku desberdinetako jendea doanez, aplikazioaren sail batean ikasleak haien artean lagundu daitezke unibertsitatera joateko. Adibidez, ikasle batek kotxea dauka eta lekuak soberan ditu, eta beste batek ez daki nola joan; ikasle hauek elkarrengan hurbil bizitzekotan kontantuan jarri eta elkarrekin joan daitezke unibertsitatera.

DISEINUA:

